

• PUNTUAK PARTZIALKI EDO GUZTIZ BERRESKURATZEA

- Puntu-kredituko puntu batzuk galdu dituztenek puntuak berreskuratu ahal izango dituzte, baldin eta 2 urtean ez badute puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin, arau-hauste astunak edo oso astunak diren kontuan hartu gabe.
- Era berean, gehienez lau puntu berreskuratu ahal izango dituzte, 10 orduko ikastaroa gaindituz. Ikastaro hori bi urtetik behin egin ahal izango da (gidari profesionalak, urtean behin).

• BAIMENA EDO LIZENTZIA BERRESKURATZEA

Puntu guztiak galtzeagatik galdutako baimena edo lizentzia berreskuratzeko, 24 orduko ikastaroa egin eta azterketa teoriko bat gainditu beharko da Trafiko Burutzan.

Puntu guztiak galtzean, ezin izango du beste baimen bat lortu sei hilabete igaro arte (gidari profesionalen kasuan, hiru hilabete).

Epe horiek bikoiztu egingo dira, hurrengo hiru urteetan puntu guztiak berriro galduz gero.

Arau-hausteen gaineko erantzukizuna

Arau orokor gisa, egindako arau-hausteen gaineko erantzukizuna egitatearen egilearena izango da zuzenean.

Hala ere:

- **Gidaria** izango da erantzulea:
 - Bidaiariak kaskoa erabiltzen ez badu, hura erabili behar den edozein ibilgailutan.
 - Haurrak lotzeko sistemak erabiltzen ez badira, hirugarrenei zerbitzu publikoa ematen dieten gidari profesionalak izan ezik.
- Ibilgailuaren dokumentazioari, aldizkako azterketei eta kontserbazio-egoerari buruzko arau-hausteen erantzulea **titularra** izango da.



ZIKLOMOTORRAREN AGIRIAK

Ziklomotorrak, bide publikoetatik zirkulatu ahal izateko, honako hauek izan behar ditu:

- **Zirkulazio-lizentzia.**
- **Ezaugarri teknikoan ziurtagiria.**
- **Erantzukizun zibileko nahitaezko aseguru.** (Indarrean dagoela egiaztatzen duen ordainagiriarekin batera joan behar du).